



AGINDUA, Jaurларitzako lehenengo lehendakariorde eta Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuarena, zeinaren bidez hasiera ematen baitzaio dekretu mailako xedapen orokor bat egiteko prozedurari. Xedapen horren bidez, aldatu egiten da 179/2003 Dekretua, uztailaren 22koa, helduentzako euskararen irakaskuntza burutzen duten euskaltegien eta beste zentro homologatuen jarduera eta horien finantzazioa Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren aldetik arautzen duena.

Azaroaren 25eko 29/1983 Legeak Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea (aurrerantzean, HABE) sortu zuen, helduen euskalduntze- eta berreuskalduntze-zerbitzuaren bidez benetako biztanleria elebiduna sendotzeko helburuarekin.

Lege hori garatzekoan, 2003ko uztailaren 22ko 179/2003 Dekretuak, uztailaren 22koa, helduentzako euskararen irakaskuntza burutzen duten euskaltegien eta beste zentro homologatuen jarduera eta horien finantzazioa Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren aldetik arautzen duenak, HABEren dirulaguntza-jarduera berariaz arautzen du, bai eta jarduera hori bideratu behar duten printzipioak ezarri ere.

Agindu honen bidez, aipatutako dekretua bi zentzutan aldatzea proposatzen da.

Lehenik eta behin, 179/2003 Dekretuaren 17. artikulua HABEren dirulaguntza-jardura ikasleek euskararen ikaskuntzan egiten duten benetako aurrerapenarekin lotzen du («*emaitza akademikoen baitan*»).

ORDEN de la vicepresidenta primera del Gobierno y consejera de Cultura y Política Lingüística, por la que se inicia el procedimiento de elaboración de una disposición general con rango de Decreto, de modificación del Decreto 179/2003, de 22 de julio, de regulación de la actividad de los euskaltegis y demás centros homologados que imparten la enseñanza del euskera a adultos, y de su financiación por la Administración de la Comunidad Autónoma de Euskadi.

La Ley 29/1983, de 25 de noviembre, creó el Instituto de Alfabetización y Reeskaldunización de Adultos (en adelante, HABE) con el fin de consolidar una población realmente bilingüe, a través de la prestación de un servicio de euskaldunización de la ciudadanía.

En desarrollo de la mencionada Ley, el Decreto 179/2003, de 22 de julio de 2003, que regula la actividad de los euskaltegis y demás centros homologados que imparten la enseñanza del euskera a adultos y su financiación por la Administración de la Comunidad Autónoma de Euskadi, regula específicamente la actividad subvencional de HABE y establece los principios que han de regirla.

Mediante la presente Orden se propone modificar el antecitado Decreto en un doble sentido.

En primer lugar, el artículo 17 del Decreto 179/2003 vincula la actividad subvencional de HABE a la progresión efectiva del alumnado en el aprendizaje del euskera («*en función de sus resultados académicos*»).



Helburu desiragarria bada ere, eta erakunde autonomo honek helburu horri uko egiten ez badio ere, egokitzen jo da HABEren zuzendaritza nagusiari aukera ematea, bere aurrekontu-baliabideek ahalbidetzen duten neurrian, printzipio horrekin hertsiki lotuta ez dauden dirulaguntza-programak ere ezar ditzan. Horrela, bestela ere desiragarriak diren prozesuak bultzatu ahal izango dira, hala nola euskara ikasteari utzi dioten pertsonak berriz ere ikaskuntza-prozesura itzultzea, edo euskara-ikastaroetan birmatrikulatze jarraia, ikasleek euskararen erabilera soziala bultzatzeko adinako gaitasuna lor dezaten. Hori baita, azken batean, HABEk euskalduntze-prozesuaren bidez lortu nahi duen helburua behinena.

Bigarrenik, beste zenbaitetan adierazi den bezala (horien artean esanguratsuen eta garrantzitsuen jarraian aipatzen dena da), HABEren finantzaketa-jardueran metatutako bi hamarkadatik gorako esperientziak agerian utzi du mugak dituela dirulaguntza-jarduera ikasturteari hertsiki lotzeak, aldatu nahi den dekretuaren 16. artikulua xedatzen duen bezala («HABEren zuzendari nagusiak, ikasturte akademiko bakoitzean, dirulaguntzen deialdiak egingo ditu...»).

Illo horretan, eta ekimen honekin batera, Jaurlaritzako lehenengo lehendakariorde eta Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuaren 2026ko ekainaren 4ko Aginduaren bidez, aurretiko kontsulta egin da Euskal Autonomia Erkidegoan helduen euskalduntzea eta alfabetatzea ituntzeko araubidea ezarri eta arautzeko xedapen orokor

Constituyendo ello un objetivo deseable, al que este organismo autónomo no renuncia, se ha estimado, sin embargo, oportuno habilitar que la dirección general de HABE pueda también, en la medida de sus capacidades presupuestarias, establecer programas subvencionales que no se vinculen estrictamente al citado principio. Pueden, así, favorecerse procesos igualmente deseables como el reingreso en el aprendizaje del euskera de personas que lo hayan abandonado, o la rematriculación continuada en los cursos de euskera con el objetivo de que el alumnado consiga un nivel de euskera suficiente para fomentar su uso social, lo que constituye, en último término, el objetivo que persigue HABE con el proceso de euskaldunización.

En segundo lugar, como se ha indicado en otras ocasiones (la más significativa de las cuales se cita a continuación), de la experiencia de más de dos décadas en la actividad financiadora de HABE se extrae una visión que denota las limitaciones de la vinculación estricta de la actividad subvencional al curso académico tal y como prescribe el artículo 16 del Decreto que ahora quiere modificarse («El Director General de HABE realizará, cada curso académico, convocatorias de ayudas...»).

En efecto, a este respecto, y simultáneamente a esta iniciativa, por Orden de 4 de junio de 2026 de la vicepresidenta primera del Gobierno y consejera de Cultura y Política Lingüística se ha sometido a consulta previa la elaboración de una disposición de carácter general para el establecimiento y regulación del régimen de concertación de la



bat egiteko, euskaltegi pribatuen finantzaketarako eredu integralago bat abian jartzeko asmoz.

euskaldunización y alfabetización de personas adultas en la Comunidad Autónoma de Euskadi, en la pretensión de poner en marcha un esquema más holístico de financiación de los euskaltegis privados.

Aipatutako aurretiazko kontsultaren aginduak, hemen jorratutako gaiari eta aldatu nahi den arauari dagokienez, bi gauza zizkion: alde batetik, urte naturaleko edo ikasturteko erreferentzia-aldietatik eratorritako zailtasunak adierazten zituen, eta, bestetik, azpimarratzen zuen ekimen horrek eta 179/2003 Dekretuan ezarritako esparru orokorrak bat egiteko behar den harmonizazio juridikoak, aldi berean, dekretu hau aldatzea eskatuko zuela, ikasturtearen esparrua gainditzen duten ekimenetara edo beste batzuetara egokitzeko, hori baita helduen euskalduntzea eta alfabetatzea finantzatzeko erreferentziazko funtsezko unitatea. Orduan adierazi zen, efizientzia eta legegintza-teknika arrazoiengatik, hori prozedura independente batean gauzatuko zela, eta orain prozedura horri ekin nahi zaio.

La citada Orden de consulta previa, en referencia a la cuestión aquí abordada y la norma que trata ahora de modificarse, señalaba, por un lado, las dificultades derivadas de los periodos de referencia del año natural o del curso escolar, y por otro, recalaba que la armonización jurídica de aquella iniciativa con el marco general establecido en el Decreto 179/2003, exigiría, paralelamente, la modificación de este Decreto para adecuarse a esa u otras iniciativas que trasciendan el marco del curso escolar como unidad fundamental de referencia para la financiación de la euskaldunización y alfabetización de adultos. Se señaló entonces que, por razones de eficiencia y técnica legislativa, ello se materializará en un procedimiento independiente, y ahora quiere abordarse ese citado procedimiento.

Horrenbestez, aipatutako aldaketa gauzatzeari ekin behar zaio orain, eta, abian den arau-aldaketarekin bat etorriz, HABEren dirulaguntza-ekimena urte naturalaren eta ikasturtearen erreferentzia-esparru hertsitik askatu. Horrela, behar den segurtasun juridikoa bermatuko da aldaketa hori gauzatzeko, eta, oro har, euskaltegien finantzaketa ikuspegi plurianual baten arabera antolatu ahal izango da. Horrek, gainera, euskaltegien egonkortasuna indartuko du, hainbat ikasturtetako garapena

Corresponde, por lo tanto, asumir ahora la citada materialización y, por coherencia con la modificación en curso, superar la vinculación de la iniciativa subvencional de HABE al marco temporal del año natural y curso escolar, a fin de garantizar la seguridad jurídica necesaria para emprender aquella modificación y, en general, habilitar la financiación de los euskaltegis con una perspectiva plurianual, lo que redundará en su estabilidad, su capacidad de abordar proyectos a desarrollar en varios



eskatzen duten proiektuei ekitea erraztuko du, eta, azken finean, helduen euskalduntze- eta alfabetatze-sistemaren kalitatea hobetzen lagunduko du.

cursos académicos y, en última instancia, una mayor calidad del sistema de educación de euskera para adultos.

Ekainaren 30eko 6/2022 Legeak, Xedapen Orokorrak Egiteko Prozedurarenak 12. artikuluko 1. paragrafoan xedatzen du: «Xedapen orokorrak egiteko prozedura xedapen horien gaiaren gainean eskumena duen saileko sailburuaren aginduz hasiko da». Kasu honetan, Jaurlaritzako lehenengo lehendakariorde eta Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuaren agindu bidez.

El apartado 1 del artículo 12 de la Ley 6/2022, de 30 de junio, del Procedimiento de Elaboración de las Disposiciones de Carácter General dispone que «*El procedimiento de elaboración de las disposiciones de carácter general se iniciará por Orden del Consejero titular del Departamento competente por razón de la materia sobre la que versen*», en este caso, por Orden de la vicepresidenta primera del Gobierno y consejera de Cultura y Política Lingüística.

Eskumen hori Lehendakariaren ekainaren 23ko 18/2024 Dekretuak (Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta sail bakoitzaren egitekoak eta jardunarloak finkatzen dituen) eta azaroaren 26ko 389/2024 Dekretuak (Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duena) esleitzen dizkieten eskumenetan oinarritzen da.

La antecitada atribución deriva de las competencias atribuidas en el Decreto 18/2024, de 23 de junio, del Lehendakari, de creación, supresión y modificación de los Departamentos de la Administración General de la Comunidad Autónoma del País Vasco y de determinación de funciones y áreas de actuación de los mismos, y en el Decreto 389/2024, de 26 de noviembre, por el que se establece la estructura orgánica y funcional del Departamento de Cultura y Política Lingüística.

Horrenbestez,

En su virtud,

EBAZTEN DUT:

RESUELVO:

Lehenengoa. Agintzea hasera eman dakiola 179/2003 Dekretuak, uztailaren 22koa, helduentzako euskararen irakaskuntza burutzen duten euskaltegien eta beste zentro homologatuen jardura eta horien finantzazioa Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren aldetik

Primero. Ordenar el inicio del procedimiento de elaboración del proyecto de Decreto, de modificación del Decreto 179/2003, de 22 de julio, de regulación de la actividad de los euskaltegis y demás centros homologados que imparten la enseñanza del euskera a adultos, y de



arautzen duena aldatzeko dekretu-proiektua egiteko prozedurari.

su financiación por la Administración de la Comunidad Autónoma de Euskadi.

Bigarrena. Agindu honen bidez hasiera ematen zaion dekretu-proiektua agindu honen eranskinean jasotako irizpide eta izapideei jarraikiz egingo da, Xedapen Orokorrek Egiteko Prozeduraren ekainaren 30eko 6/2022 Legean ezarritakoaren arabera.

Segundo. El Proyecto de Decreto cuyo inicio se ordena se elaborará conforme a los criterios y los trámites que se contienen en el documento anexo a esta Orden, de acuerdo con lo establecido en la Ley 6/2022, de 30 de junio, del Procedimiento de Elaboración de las Disposiciones de Carácter General.

Ibone Bengoetxea Otaolea

Jaurlaritzako lehenengo lehendakariorde eta Kultura eta Hizkuntza

Politika sailburua

Vicepresidenta primera del Gobierno y consejera de Cultura y Política Lingüística

**ERANSKINA****ANEXO****1. Xedea eta helburua**

Dekretu-proiektu honen xedea da uztailaren 22ko 179/2003 Dekretua aldatzea. Dekretu horrek helduentzako euskararen irakaskuntza burutzen duten euskaltegien eta beste zentro homologatuen jardura eta horien finantzaketa Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren aldetik arautzen ditu. Aldaketa horrek bi helburu ditu.

Alde batetik, HABEren dirulaguntza-jardura nahitaez ikasleen aurrerapen akademikoaren mende ez egotea ahalbidetu nahi da, izan ere, euskararen ikaskuntza utzi duten pertsonen itzulera eta birmatrikulazioa errazteko mekanismoak ezartzea ere lortu nahi da.

Bestetik, HABEren sustapen-jardueran urte anitzeko ikuspegia txertatu nahi da, euskaltegi pribatuen itun-araubidea ezartzeko (jada abian den arau-ekimena) beharrezkoa den segurtasun juridikoa bermatzeko, eta, oro har, euskaltegien finantzaketa urtebetetik gorako aldietarako gaitzeko. Horrela, haien egonkortasuna indartuko da, epe ertain eta luzeko proiektuei ekiteko gaitasuna handituko da, eta, azken batean, helduen euskalduntze- eta alfabetatze-sistemaren kalitatea hobetuko da.

2. Bideragarritasun juridikoa eta materiala**1. Objeto y finalidad**

El objeto de este proyecto de Decreto es modificar el Decreto 179/2003, de 22 de julio de 2003, que regula la actividad de los euskaltegis y demás centros homologados que imparten la enseñanza del euskera a adultos y su financiación por la Administración de la Comunidad Autónoma de Euskadi, con una doble finalidad.

De un lado, se pretende habilitar que la actividad subvencional de HABE no esté forzosamente sometida, en todo caso, a la progresión académica del alumnado, sino que también se establezcan mecanismos para poder favorecer el reingreso y la rematriculación de personas que, eventualmente, hayan podido abandonar el aprendizaje del euskera.

De otro lado, se pretende establecer un funcionamiento plurianual en la actividad de fomento de HABE, a fin de garantizar la seguridad jurídica necesaria para establecer un sistema de concertación de los euskaltegis privados (iniciativa normativa ya emprendida) y, en general, habilitar la financiación de los euskaltegis en ciclos de duración superior a un año, para mejorar su estabilidad, su capacidad de abordar proyectos a medio y largo y, en última instancia, una mayor calidad del sistema de educación de euskera para adultos.

2. Viabilidad jurídica y material



Dekretu-proiektu honen bideragarritasun juridikoa eta materiala azaroaren 25eko 29/1983 Legearen, Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea Sortaraztekoa eta Euskaltegiak Araupetzezkoaren, 2. artikulua helduen euskalduntzearen arloan HABEri aitortzen dizkion eskumenetan oinarritzen da.

Hain zuzen ere, aipatutako legearen 16. eta 17. artikulua garatzeko onartu zen uztailaren 22ko 179/2003 Dekretua, helduentzako euskararen irakaskuntza burutzen duten euskaltegien eta beste zentro homologatuen jardura eta horien finantzazioa Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren aldetik arautzen duena, eta dekretu hori da orain aldatu nahi dena.

Adierazi den bezala, 29/1983 Legeak HABEri bere dirulaguntza-lerroak garatzeko gaikuntza aitortzen dionez, egokia da orain esparru hori aldatzea, aurreko puntuan jasotako helburuak erdiesteko.

3. Ondorioak ordenamendu juridikoan

Arau-ekimen honen xedea da uztailaren 22ko 179/2003 Dekretua aldatzea, helduentzako euskararen irakaskuntza burutzen duten euskaltegien eta beste zentro homologatuen jardura eta horien finantzazioa Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren aldetik arautzen duena, urtebeteko denbora-esparruarekiko eta ikasleen aurrerapen akademikoarekiko duen lotura hertsia gainditzeko, eta, horrela, kategoriazio horri hertsiki erantzuten

La viabilidad jurídica y material de este proyecto de Decreto se sustenta en el marco de las competencias reconocidas a HABE en el artículo 2 de la Ley 29/1983, de 25 de noviembre, de creación de dicho ente y de regulación de los euskaltegis, en materia de euskaldunización de personas adultas.

Precisamente en desarrollo de los artículos 16 y 17 de la citada Ley se elaboró el Decreto 179/2003, de 22 de julio, de regulación de la actividad de los euskaltegis y demás centros homologados que imparten la enseñanza del euskera a adultos, y de su financiación por la Administración de la Comunidad Autónoma de Euskadi, que ahora se modifica.

Como se ha indicado, dado que la Ley 29/1983 concede a HABE la habilitación para desarrollar sus propias líneas subvencionales, se quiere ahora modificar el citado marco en pos de los objetivos señalados en el punto antecedente.

3. Repercusiones en el ordenamiento jurídico

Esta iniciativa normativa pretende modificar el Decreto 179/2003, de 22 de julio de 2003, que regula la actividad de los euskaltegis y demás centros homologados que imparten la enseñanza del euskera a adultos y su financiación por la Administración de la Comunidad Autónoma de Euskadi, para superar su vinculación estricta al marco temporal de un año y a la progresión académica del alumnado, y así habilitar líneas subvencionales que no respondan estrictamente a esa categorización.



ez dioten dirulaguntza-ildoak ere ezarri ahal izateko.

Ekimen honen arau-eragina HABEren Aholkularitza Juridikoaren memoria baten bidez aztertuko da, Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren ekainaren 30eko 6/2022 Legearen 15.3 artikuluan xedatutakoaren arabera.

El impacto normativo de la iniciativa será objeto de memoria de la asesoría jurídica de HABE, según lo dispuesto en el artículo 15.3 de la Ley 6/2022, de 30 de junio, del Procedimiento de Elaboración de las Disposiciones de Carácter General.

Nolanahi ere, aurretiazko azterketa eginda, ez da hautematen goragoko mailako arauekin kontraesanik, ezta arau-ekimen hau desagokitzat joko lukeen ondorio kaltegarriak ere.

En todo caso, no se advierten *a priori* contradicciones con normas de rango superior ni efectos indeseables que desaconsejen la iniciativa normativa.

4. Aurretiazko balorazio generoaren aldeko ikuspegitik

4. Estimación preliminar sobre relevancia desde el punto de vista del género

Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren ekainaren 30eko 6/2022 Legearen 13.1.c) artikulua ezartzen du generoaren araberako eraginaren aurretiazko azterketak kontuan hartu behar direla, eta arau-proiektuak generoaren ikuspegitik duen garrantziari buruzko lehen balorazio arrazoitu bat jaso behar dela.

El artículo 13.1.c) de la Ley 6/2022, de 30 de junio, del Procedimiento de Elaboración de las Disposiciones de Carácter General establece que se tendrán en cuenta los análisis preliminares de impacto en función del género, y se incluirá una primera estimación motivada sobre la relevancia desde el punto de vista del género de la norma proyectada.

Ildo beretik doa 1/2023 Legegintzako Dekretua, martxoaren 16koa, emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistatik gabe bizitzeko Legearen testuategina onartzen duena, 19. eta 20. artikuluetan, generoaren araberako eraginaren aurretiazko ebaluazioari eta desberdintasunak ezabatze eta berdintasuna sustatzeko neurriak dagokienez.

En este mismo sentido se pronuncia el Decreto Legislativo 1/2023, de 16 de marzo, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley para la Igualdad de Mujeres y Hombres y Vidas Libres de Violencia Machista contra las Mujeres, en sus artículos 19 y 20, en relación con la evaluación previa del impacto en función del género y medidas para eliminar desigualdades y promover la igualdad.



Sailaren txosten juridikoak genero eraginaren aurretiazko balorazioa egingo du, hargatik eragotzi gabe EMAKUNDEk gero bere beharrezko txostenean adieraz dezakeena.

5. Proiektuaren aurrekontu-eraginak

Aldatu nahi den arauak ez du, berez, zuzeneko aurrekontu-eraginik HABEren kontabilitatean. Izan ere, ez du zerbitzu berri bat ezartzea edo gastu jakin bat bere gain hartzea helburu. Aitzitik, HABEk abian jar ditzakeen dirulaguntza-ildoen irismena eta ezaugarriak zabaltzeko behar den arau-esparrua ezartzea du xede.

Dirulaguntza-ildo berri horiek izango dira, hala badagokio eta dagokien unean, jarduteko beharrezkoak izango dituzten aurrekontu-zuzkidurak izan beharko dituztenak. Nolanahi ere, aurrez adierazi den bezala, dirulaguntza-ildo horiek prestatzean egingo dira dagozkien kontrolak, bai Eusko Jaurlaritzaren Zerbitzu Juridikoa Antolatzeke ekainaren 2ko 7/2016 Legearen 4. artikuluan aurreikusitako sailaren txosten juridikoaren bidez (kasu honetan, HABEren Aholkularitza Juridikoaren txostenaren bidez), bai Kontrol Ekonomikoko Bulegoak egindako txosten ekonomiko-arauemailearen bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko Ekonomia Kontrolari eta Kontabilitateari buruzko Legearen testu bategina onartzen duen urriaren 19ko 2/2017 Legegintzako Dekretuaren 25. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoaren arabera.

El informe jurídico departamental realizará una valoración preliminar del impacto de género, sin perjuicio de cuanto pueda manifestar posteriormente EMAKUNDE en su preceptivo informe.

5. Incidencias presupuestarias del proyecto

La modificación normativa que se pretende no conlleva, *per se*, efectos presupuestarios directos sobre la contabilidad de HABE, pues no consiste en la implantación de un nuevo servicio ni la asunción de un determinado gasto, sino en la mera habilitación normativa para ampliar el espectro y los caracteres de las líneas subvencionales que HABE pueda poner en funcionamiento.

Serán esas nuevas subvencionales, en su caso y en su momento, las que requieran de sus propias dotaciones presupuestarias para poder ser operativas, pero ello será, como se indica, objeto de los correspondientes controles en el momento de su elaboración, sea a través del informe jurídico departamental (en este caso, informe de la asesoría jurídica de HABE), previsto en el artículo 4 de la Ley 7/2016, de 2 de junio, de Ordenación del Servicio Jurídico del Gobierno Vasco, sea a través del informe económico-normativo emitido por la Oficina de Control Económico, con arreglo a lo dispuesto en el artículo 25 y siguientes del Decreto Legislativo 2/2017, de 19 de octubre, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley de Control Económico y Contabilidad de la Comunidad Autónoma de Euzkadi.



6. Bidezkoak diren izapideak eta txostenak

6/2022 Legean xedatutakoarekin bat etorritik, agindu hau egiteko eta onartzeko beharrezkotzat jotzen diren izapideak eta txostenak honako hauek dira:

6.1. Prozedura osoaren izapidetzea (ondoren deskribatzen dena, beharrezkoak diren txostenekin batera) izapidetze elektronikorako "Tramitagune" aplikazio informatikoaren bitartez gauzatuko da, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren zenbait prozedura modu elektronikoa izapidetzeko jarraibideak onartzeko Gobernu Kontseiluaren 2017ko abenduaren 12ko Erabakiari jarraiki.

6.2. 6/2022 Legearen 11. artikuluen 4. apartatua aurreikusitakoaren arabera, herritarrei aldez aurretik egin beharreko kontsultaren orde, entzunaldi eta informazio publiko izapideak egingo dira. Izan ere, aipatutako manuak aukera hori aurreikusten du, betiere izapide horiek instrukzio-fasean egiten badira eta memorian jasota uzten bada.

6.3. Hala, Jaurlaritzako lehenengo lehendakariorde eta Kultura eta Hizkuntza Politikaren sailburuak agindu-proiektua egiteko prozedura hasiko du, 6/2022 legearen 12. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik. 6/2022 legearen 13.2 artikuluan xedatutakoaren arabera, hasteko agindu hau Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoa iragarkitaulan argitaratuko da. Behin

6. Trámites e informes que se estiman procedentes

De conformidad con lo dispuesto por la Ley 6/2022, los trámites e informes que se estiman necesarios para la elaboración y aprobación de la presente Orden son los siguientes:

6.1. La tramitación de todo el procedimiento, cuyos trámites e informes se detallan a continuación, se realizará a través de la aplicación informática de tramitación electrónica "Tramitagune", y ello conforme al Acuerdo del Consejo de Gobierno de 12 de diciembre de 2017, por el que se aprueban las instrucciones para la tramitación electrónica de determinados procedimientos de la Administración Pública de la Comunidad Autónoma de Euzkadi.

6.2. De conformidad con lo previsto en el apartado 4 del artículo 11 de la Ley 6/2022, la consulta previa a la ciudadanía se sustituye por los trámites de audiencia e información pública posterior. Y es que el mencionado precepto prevé dicha posibilidad, siempre y cuando dichos trámites se efectúen en fase de instrucción y se deje constancia de ello en la memoria.

6.3. El procedimiento de elaboración del proyecto de norma se iniciará mediante Orden de la vicepresidenta primera del Gobierno y consejera de Cultura y Política Lingüística, de acuerdo con lo dispuesto en el artículo 12 de la Ley 6/2022. De conformidad con lo dispuesto en el artículo 13.2 de citada Ley, esta orden de inicio será objeto de publicación en el tablón de anuncios de la sede electrónica de la Administración pública de la



argitalpena eginda, sail guztiek horren berri dutela ulertuko da, modu automatikoan, ekimenaren egokitasunari buruzko oharra egin ahal izan ditzaten, hala badagokio.

Comunidad Autónoma de Euskadi. Dicha publicación supondrá la comunicación automática al conjunto de los departamentos, a fin de que, en su caso, puedan formular observaciones a la iniciativa.

6.4. Agindua bi hizkuntza ofizialetan, euskaraz eta gaztelaniaz, idatziko da argitara dadin. Era berean, prozedura osoan zehar, prestaketan parte hartzen dutenen eta hartzaileen hizkuntza-berdintasuna bermatuko da.

6.4. La Orden será redactada en las dos lenguas oficiales, euskera y castellano, a efectos de su publicación. Del mismo modo, a lo largo de todo el procedimiento, se garantizará la igualdad lingüística de quienes participan en la elaboración y sus destinatarios.

Era berean, aginduaren azken testuaren euskarazko eta gaztelaniazko bertsioen arteko zehaztasuna eta baliokidetasuna bermatzeko, proiektuaren idazketa Eusko Jaurlaritzako Itzultzaile Zerbitzu Ofizialak (IZO) gainbegiratu du, apirilaren 3ko 48/2012 Dekretuan xedatutakoaren arabera. Dekretu horren bidez zehazten da Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren eta haren erakunde autonomoen itzulpen-zerbitzuen zentralizazioa.

Asimismo, y a fin de garantizar la exactitud y equivalencia de la versión en euskera respecto de la versión en castellano, y viceversa, del texto final de la Orden, la redacción del proyecto será supervisada por el Servicio Oficial de Traductores del Gobierno Vasco Servicio Oficial de Traductores (IZO), de conformidad con el Decreto 48/2012, de 3 de abril, por el que se determina la centralización de los servicios transversales de traducción de la Administración General de la Comunidad Autónoma y sus Organismos Autónomos.

6.5. 6/2022 legearen 15. artikulua arabera, Jaurlaritzako lehenengo lehendakariorde eta Kultura eta Hizkuntza Politikaren sailburuak agindu-proiektua onartu beharko du dagozkion negoziazio-, entzunaldi- eta kontsulta-izapideak egin aurretik.

6.5. De conformidad con el artículo 15 de la Ley 6/2022, antes de evacuar los trámites de negociación, audiencia y consulta que procedan, el proyecto de orden será sometido a la aprobación previa de la vicepresidenta primera del Gobierno y consejera de Cultura y Política Lingüística.

6.6. Hasiera batean, txosten hauek behar dira aurreikusitako agindu-proiektua egiteko eta onartzeko:

6.6. Los informes que, en principio, se requieren para la elaboración y aprobación del proyecto de Orden previsto son los siguientes:

- **HABEren Aholkularitza Juridikoak emandako txosten juridikoa**, Eusko

- **Informe Jurídico** emitido por la Asesoría Jurídica de HABE, según lo



Jaurlaritzaren Zerbitzu Juridikoa Antolatzekeo ekainaren 2ko 7/2016 Legearen 4.a) artikuluan 6/2022 Legearen 15.4 artikuluan ezarritakoaren arabera.

establecido en el artículo 15.4 de la Ley 6/2022 en el artículo 4.a) de la Ley 7/2016, de 2 de junio, de Ordenación del Servicio Jurídico del Gobierno Vasco.

Txosten horretan, arau-eraginaren azterketari buruzko memoria jasoko da, 6/2022 Legearen 15. artikulua eskatzen duena, bai eta enpresaren eraginari buruzko txostena ere, Euskadiko Ekintzaileei Laguntzeko ekainaren 28ko 16/2012 Legearen 6. artikulua eskatzen duena.

El citado informe incluirá la memoria de análisis de impacto normativo exigido por el artículo 15 de la Ley 6/2022 y el informe de impacto de empresa exigido por el artículo 6 de la Ley 16/2012, de 28 de junio, de Emprendedores del País Vasco.

- **Memoria ekonomikoa:** adierazi da arau honek ez duela eragin zuzenik izango HABEren aurrekontuan, baina, dirulaguntzen gaia jorratzean, txostena eskatuko zaio HABEren Kudeaketa Zerbitzuko buruari, alderdi hori berrets dezan, horregatik kalterik egin gabe Kontrol Ekonomikoko Bulegoak eta espedienteak izapidetzean eskatzen diren gainerako txostenek adierazten dutenari.

-**Memoria económica:** Si bien se ha indicado que esta norma no tendrá una incidencia directa en el presupuesto de HABE, al tratar materia subvencional, se solicitará informe al jefe de servicio del Servicio de Gestión de HABE para que confirme este extremo, sin perjuicio de cuanto puedan indicar la Oficina de Control Económico y los restantes informes que se recaben en la tramitación del expediente.

- **Genero-eraginari buruzko txostena:** HABEren aholkularitza juridikoak aldeztu aurreko balorazio juridikoa egin ondoren, genero-eraginari buruzko txostena egingo da, eta Emakunderi eskatuko zaio.

- **Informe de Impacto de Género:** Tras su valoración preliminar en el informe jurídico de la asesoría jurídica de HABE, el texto será objeto de informe de Impacto de Género que se solicitará a Emakunde.

-**Euskararen erabilera normalizatzeko txostena** (Herri Administrazioetan Hizkuntza Normalizatzeko Zuzendaritza, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza).

-**Informe de Normalización de uso del euskera** (Dirección de Normalización Lingüística de las Administraciones Públicas, Viceconsejería de Política Lingüística).

-**Tokiko Gobernuen Batzordearen txostena,** 6/2022 legearen 21. artikulua araututakoaren baitan.

-**Informe de la Comisión de Gobiernos Locales,** en función de lo dispuesto en el artículo 21 de la Ley 6/2022.



- **Kontrol Ekonomikoko Bulegoaren nahitaezko txostena**, Euskal Autonomia Erkidegoko Ekonomia Kontrolari eta Kontabilitateari buruzko Legearen testuategina onartzen duen urriaren 19ko 2/2017 Legegintzako Dekretuaren 25.1 artikuluan xedatutakoaren arabera.

- **Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoaren irizpena**, Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoari buruzko azaroaren 24ko 9/2004 Legearen 3. artikuluan ezarritakoaren arabera.

- **Informe preceptivo de la Oficina de Control Económico**, en virtud de lo dispuesto en el artículo 25.1 del Decreto Legislativo 2/2017, de 19 de octubre, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley de Control Económico y Contabilidad de la Comunidad Autónoma de Euskadi.

- **Dictamen de la Comisión Jurídica Asesora de Euskadi**, de conformidad con lo establecido en el artículo 3 de la Ley 9/2004, de 24 de noviembre, de la Comisión Jurídica Asesora de Euskadi.

Aitzitik, ez dira bidezkoak, azaltzen diren arrazoiengatik, ondorengo txosten hauek, eta, beraz, ez dira eskatuko:

- Lan Harremanen Kontseiluaren eta Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen txostenak, hemen izapidetutako arauak ekonomia- eta gizarte-politikarekin duen lotura soilik azalekoa izateagatik.
- Legezkotasunari buruzko nahitaezko txostena, hain zuzen ere, aipatu den moduan, Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoaren txostena egokia delako.

Por el contrario, no resultan procedentes, y por lo tanto, no se solicitarán los siguientes informes, por los motivos que se exponen:

- Informes del Consejo de Relaciones Labores y del Consejo Económico Social Vasco política económica y social, por su conexión únicamente periférica de la norma aquí tramitada con la política económica y social.
- Informe preceptivo de legalidad, por resultar procedente el antecitado informe de la Comisión Jurídica Asesora de Euskadi.

7. Entzunaldia eta informazio publikoa

6/2022 legearen 17. artikuluan aurreikusitako entzunaldiaren eta jendaurreko informazioaren izapidea egingo da, hainbat erakundek ekarpenak egin ahal izan ditzaten (euskaltegiak eta autoikaskuntzako zentro homologatuak).

7. Audiencia e información pública y remisión al Parlamento Vasco

Se realizará el trámite de audiencia e información pública previsto en el artículo 17 de la Ley 6/2022 a los efectos de que puedan realizar sus aportaciones diversas entidades (euskaltegis y centros homologados de autoaprendizaje).



Halaber, 6/2022 Legeak eskatzen dituen jakinarazpenak egingo zaizkio Eusko Legebiltzarrari.

Asimismo, se realizarán las comunicaciones al Parlamento Vasco exigidas por la Ley 6/2022.

8. Europar Batasunaren aurreko izapideak

Ez da beharrezkotzat jotzen Europar Batasunean izapiderik egitea.

8. Trámites ante la Unión Europea

No se aprecia la necesidad de realizar ningún trámite ante la Unión Europea.

9. Instrukzioa gauzatzeko izendatzen den administrazio-organoa

HABEren zuzendaritza nagusia arduratuko da prozedura bideratzeaz.

9. La designación del órgano administrativo al que se encomienda la instrucción

La Dirección General de HABE será el órgano encargado de la instrucción del procedimiento.

10. Urteko Araugintza Plana

Izapidetzen hasi den xedapen-proiektua ez dago aurreikusita Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren 2026ko Urteko Araugintza Planean.

10. Plan Anual Normativo

El proyecto de disposición cuya elaboración se inicia no se encuentra previsto en el Plan Anual Normativo del Departamento de Cultura y Política Lingüística de 2026.

Hala ere, guztiz bidezkotzat jotzen da, agindu honetan aurrez azaldutako helburuak garatzeko eta euskaltegi pribatuen itun-araubidea ezartzeko behar den segurtasun juridikoa bermatzeko. Izan ere, sistema hori ezartzeko prozedura dagoeneko hasita dago, aipatutako planean jasota dago, eta proposamen hau haren halabeharrezko ondorioa da.

No obstante, se estima que es plenamente procedente, para desarrollar los objetivos previamente explicados en esta Orden y para garantizar la seguridad jurídica necesaria con respecto al establecimiento de un sistema de concertación de los euskalteis privados, procedimiento ya iniciado y que sí se halla recogido en el citado plan, y del que esta propuesta deriva necesariamente.